

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

3743

AGINDUA, 2026ko uztailaren 1ekoa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bitartez immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak garatzeko laguntza ekonomiko batzuetarako oinarriak onartzen baitira eta haien 2026. urterako deialdia egiten baita, EAEko toki-erakunde, tokiko organismo autonomo eta tokiko merkataritza-sozietateetarako.

Migrazio-mugimenduak etengabeak eta dimentsio anitzekoak dira, eta eraikuntza-prozesu sozialak modelatzen ari dira gure gizartean. Horien ondorioz, euskal gizartea sakon-sakonetik eboluzionatzen eta aldatzen ari da. Zentzu horretan, immigrazioa konplexua da oso; ezin landu da Estatuko eta autonomia-erkidegoko administrazioen eskumenekin soilik; erakunde publiko guztiek heldu behar diote koordinaturik. Testuinguru horretan, toki-administrazioak funtsezko zeregina betetzen du, bertan gauzatzen baitira hango eta hemengo gizon-emakumeen arteko eguneroko harremanak, eta bertan geratzen baitira agerian integrazioaren arloko politika publikoen gabeziak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak udalerriei oinarri-oinarrizko eskumen batzuk ematen dizkie premiak detektatzeko, jendartean esku-hartzeko, eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen berehalako arreta emateko. Migrazioaren eremuan baina, eginkizun horiek ugariagoak dira, harrera, orientazioa eta gizarteratzea bermatu beharrez; eta, horretarako, baliabide tekniko espezializatuak behar dira, plangintza iraunkorra behar da, udalen finantza-gaitasun arruntaz haratago. Horregatik, aukera-berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren alde egitearren, ezinbestekoa da erakundeen artean lankidetzan jardutea eta autonomia-erkidegoak ere finantzaketan parte hartzea.

Bada, azken urteotako dirulaguntza-politikaren hari beretik, deialdi honi bide eman nahi diogu, udaletako proiektu batzuk kofinantzatu gogoz. Izango dira, besteak beste, harrera- eta bizikidetzaplanak egiteko, harrera-zerbitzuak abian jartzeko, eta jendarte-sareetan oinarritzen diren esku-hartzeak burutzeko. Eusko Jaurlaritzak, deialdi honen eta beste ekimen batzuen bidez, gizarte askotarikoa eta kohesionatua eraikitze konpromisoa berresten du, gizarte-integrazioa, aukera-berdintasuna eta herritarren parte-hartzea lortzen lagunduko duten udal-ekimenak bultzatuz, elkartasunaren, erantzukidetasun instituzionalaren eta giza eskubideekiko errespetuaren printzipioekin bat etorritik.

Hona iritsita, begiradezagun lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 15. artikuluan, haren bidez sortzen, ezabatzen eta aldatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak eta finkatzen baitira sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak, eta ikusiko dugu Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari esleitzen dizkiola migrazioaren eta asiloaren arloko egitekoak eta jardun-arloak.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuak, bere aldetik, gai hauen gaineko zeregin eta jardun-arloak ezartzen ditu: boluntarioritza, gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuak, immigrazioa, gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka, erakunde arteko adostasuna sustatzea, elkarriketa soziala, lanbide-lankidetzak, elkartasun zibikoa, sareko lana, jakintzaren kudeaketa eta herritarren partaidetza sustatzea gizarte esku-hartzeen eta gizarte-politiken eremuan; eta jardun-eremu lehenetsitatzat dauzka eskubide sozialak baliatzeko ikuspuntutik gizarte-egoera bereziki zaurgarrian bizi diren pertsonak eta kolektiboak.

2026ko ekitaldiari begira, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak, erkidegoa, belaunaldiarteko elkartasuna, erronka demografikoa eta berrikuntza gogoan harturik, helburu estrategiko batzuk sustatu nahi ditu, ea lortzen duen bide beretik eramatea dagozkion sustapen-ekimenak eta beste ekintza batzuetan egiten duen ahalegina. Era berean, gehitu behar da ekimen hau bat datorrela XIII. legegintzaldiko Gobernu Programarekin, eta lotura estua duela 56. konpromisoarekin (Migratzaileen eta errefuxiatuen integrazioarako laguntza): 1. eta 5. ekimenak, migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko eta integrazteko politikak sustatzeari buruzkoak.

Deialdi-agindu honek egin beharreko aurreikuspenak egiten ditu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze Legeko xedapenak betetzeko (abenduaren 21eko 20/2023 Legea); eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago: plan estrategiko hori Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren 2025eko otsailaren 21eko Aginduaren bidez onartu zen (2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena). Horrela, deialdi honen bidez, jarduera batzuk bultzatu eta sustatu nahi ditugu, gero udal-errietan garatzeko; askotarikoak, baina betiere, helburu estrategiko garbia dutenak: harrera- eta gizarteratze- mekanismoak artikulatuz, handik eta hemendik etorritako jendea elkarrekin giza legez bizi dadin lortzea.

Illo horretan, Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzetarako, abenduaren 23ko 7/2025 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026 ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, bermatzen du badela nahiko aurrekontu krediturik.

Azaldutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

2026. urterako oinarriak onartzea, eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia egitea norgehiagoka-araubidea baliatuz, I. eranskinean onartu eta agertzen diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Aginduan jasotako dirulaguntzak kudeatzeko eskuratutako datu pertsonalak arau hauen arabera tratatuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa; Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Datu-babesari buruzko informazio xehatua lortzeko, helbide honetara jo daiteke: <https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/110400-capa1-es.shtml>

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan berariaz aurreikusi ez diren gaietarako, hauek aplikatuko dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze Legeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuak xedatutako arau orokorrak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko titularrari edo migrazio- eta asilo-gaietan haren baliokidea den organoari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 1a.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

GINARRI ARAUTZAILE HAUETAN DAGO ZEHASTURIK ZER ARAUBIDE BETEKO
DEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKI-ERAKUNDEEI, TOKIKO ERAKUNDE
AUTONOMOEI ETA TOKIKO MERKATARITZA-SOZIIETATEEI DIRULAGUNTZAK
EMATEKO IMMIGRAZIOAREN ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZAREN ARLOKO
JARDUERAK GARA DITZATEN 2026. URTERAKO

1. oinarria.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da dirulaguntza batzuetarako oinarriak onartzea 2026rako eta haien deialdia egitea, norgehiagoka-araubidean, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzenduta, zehatz-mehatz immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren eremuan jarduerak garatzeko.

2.– Dirulaguntzak zertan erabil daitezkeen: herritarren eskubide-betebeharren inguruko jarduerak taxutzeko edo burutzeko; harrera- eta bizikidetzaren planak egiteko; harrera-zerbitzuak abian jartzeko; truke eta interakzio positiboko guneak sortzeko; etorkinak gizarteratzeko; jendarte-sareetan oinarritzen diren esku-hartzeak egiteko; eta, oro har, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuekin lotutako jardueretarako, baldin eta Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren 2022-2025 aldirako VI. Kultura arteko Planaren printzipio gidarien arabera garatzen badira eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.35 artikuluan aurreikusitakoaren esparruan garatzen badira eta dena delako sektorean ez badago lege zehazturik udal-eskumena noraino iristen den.

Diruz lagundutako proiektuek eta programek bat etorri beharko dute 2022-2025 aldirako Herri-tartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planarekin.

3.– Jarduerak gauzatzeko epea 2026ko ekitaldia da.

2. oinarria.– Entitate onuradunak.

1.– Erakunde hauek izan daitezke immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak prestatu eta egiteko laguntzen onuradun:

- a) EAEko toki-erakundeak.
- b) EAEko tokiko organismo autonomoak.
- c) EAEko tokiko merkataritza-sozietateak.

2.– Deialdi honetako laguntza ekonomikoak eskatzen dituzten EAEko tokiko merkataritza-sozietateek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Kapital sozialak titulartasun publikokoa izan behar du, oso-osorik.
- b) EAEko udalek osatu behar dute bazkideen gehiengoa.
- c) Parte hartzen duten udaletako alkateek berariaz izendatu behar izan dituzte eskatutako dirulaguntzaren xede diren jarduerak egiteko.

3.– EAEko toki-erakunde batek baino gehiagok batera egin ditzakete eskabideak, zerbitzu mankomunaturik ez izan arren. Baterako eskabideak eginez gero, eskabideek berariaz adierazi behar dituzte erakunde bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko laguntza-zenbatekoa, denak izango dira-eta onuradun. Era berean, ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da, elkarte horri onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak

betetzeko nahikoa ahalmen izango duena. Toki-erakundeen arteko elkarte hori ezingo da desegin, harik eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluan xedatutako preskripzio-epea igaro arte.

3. oinarria – Izapidetze elektronikoa.

1.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.2.a) artikuluan arautzen duena betetzeko, erakunde interesdunek telematikoki egin behar dituzte laguntza-programa honetarako izapide guztiak.

2.– Agindu honen eranskinetan jasotako eskabide-eredua, bai eta eskabideak izapidetzeko zehaztapenak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak ere, eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/servicios/0606409>) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako aginduan.

3.– Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

4.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak –jakinarazpenak eta justifikazioak barne– bide elektronikoz egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» erabiliz: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4. oinarria.– Eskabideak.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskabidea osorik bete behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen formularioan, eta horrekin batera, nahitaezko dokumentazioa aurkeztu behar da, agindu honen II. eranskinean erantsitako eredu normalizatuen arabera.

3.– Eskatzaile bakoitzari ez zaio dirulaguntza bat baino gehiago emango. Erakunderen batek eskabide bat baino gehiago aurkezten baldin badu, epearen barruan eta sarrera-erregistroaren arabera azkena aurkeztu duena soilik aztertuko da, eta ezetsi egingo dira gainerakoak.

4.– Entitate eskatzaileek laguntza-eskabidea eta horri erantsitako dokumentazioa berek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte. Orobat, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan zehar, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duen bezala.

5.– Erakunde eskatzaileak ziurtatu beharko du beteko dela Haurrei eta nerabeei babes osoa emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan ezarritakoa. Hau da, nahitaezkoa izango da, adingabeekin ohiko harremana dakarren edozein lanbide, ofizio eta jardueratara jotzeko eta horretan aritzeko, epai irmo bidez kondenatua ez izatea Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako edozein delitugatik, ezta Zigor Kodearen VII bis tituluan tipifikatutako gizakien salerosketako edozein delitugatik ere. Horrenbestez, lanbide, ofizio edo jarduera horietan aritu nahi duen orok Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuz egiaztatu beharko du inguruabar hori.

6.– Era berean, erakunde eskatzaileak adieraziko du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela dirulaguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

7.– Kopia autentikoak aurkeztu beharko dira, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 27. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

5. oinarria.– Eskabideak zuzentzea.

1.– Eskabideak ez baditu betetzen agindu honetan jasotako baldintza guztiak, edo osatugabea edo akastuna bada, entitate interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean hutsa zuzentzeko edo nahitaezkoak diren dokumentuak aurkezteko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik ebazpena emanda, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera.

2.– Dirulaguntzaren kide anitzeko organoak, eskabidea izapidetzea onartu ondoren, dena delako jardura balioesteko beharrezkoa iruditzen zaion informazio oro eskatu ahal izango dio erakunde eskatzaileari, 10 egun balioduneko epean ekar dezan, eta adieraziko dio bestela informazio hori kontuan hartu gabe egingo dela balorazioa.

6. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundutako gastuen izaerari buruz, Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 30. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

2.– Diruz lagun daitekeen gastutzat ezingo da jarri BEZ kengarriaren zenbatekoa, erakunde eskatzailea zerga horren deklarazioa egitera behartuta badago. Inbertsio-gastuak ere ez dira lagunduko diruz.

3.– Erakunde onuradunak ezin baldin baditu jarduerak edo programak bere langileez baliatuta burutu, jardura hori azpikontratatu egin ahal izango du, osorik edo partez, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100eraino. Inola ere ezin izango dira azpikontratatu dirulaguntzaren kostua handiagotzen duten eta jardueraren edukiari balio erantsirik gehitzen ez dioten jarduerak.

Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren 100eko 20 gainditzen duenean eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa denean, azpikontrataziorako honako eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Kontratua egin baino lehen, kontratua egiteko baimena ematea, oinarri erregulatzaileran ezarritako moduan, dirulaguntzaren entitate emaileak.

Kontratistak erakunde onuradunaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta erakunde horrek bere gain hartuko du diruz lagundutako jardura gauzatzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean. Izan ere, dirulaguntza jasoko duen jardura gauzatzeke beste inorekin ezer hitzartuz gero, beste horrek ere dirulaguntzak arautzen dituen araudiak ezarritako mugak errespetatuko dituela ziurtatu beharko du, diruz laguntzeko moduko gastuen zenbatekoari eta izaerari dagokienez; kontratistek lankidetzaren betebeharra bete behar dute, muga horiek benetan errespetatzen direla egiaztatzeke aukera emateko.

Alabaina, erakunde onuradunak ezin izango ditu hitzartu, diruz lagundutako jardueraren gauzatze oso edo partzialerako, honako hauek:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 13. artikuluan zehaztutako debekuetako bat duten pertsonak edo erakundeak.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntzaren bat jaso duten pertsona edo entitateekin.

c) Bitartekari edo aholkulariak, baldin eta ordaindu beharrekoa eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin gisa definitzen bada, ordainketa hori ez badago justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuek merkatuan daukaten balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin lotura duten pertsonak edo erakundeak, baldintza hauek bete ezean:

1) Dirulaguntza ematen duen organoaren aurretiazko baimena lortzea.

2) Diruz lagun daitekeen zenbatekoa ez izatea lotura duen entitateak izandako kostua baino handiagoa. Kostua egiaztapenean ziurtatuko da, onuradunaren gastuak ziurtatzeko ezarritako baldintza beretan.

Aurreko apartatueta aurreikusi gabeko edozertarako, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30 eta 31. artikuluetan xedatutako aplikatuko da.

7. oinarria.— Onuradun izateko betekizunak.

1.— Ezin dira izan onuradunak inguruabar hauetako batean dauden entitateak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko aukeraren galerarekin administratiboki edo penalki zehatuta egotea edo horretarako gaitasunik gabe uzten duen lege-debeku baten menpe egotea. Alde horretatik, ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuan oinarrituta diskriminatzen duten jardueri, ezta sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira, halaber, estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

b) Hartzekodunen borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskatuta izatea, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo izatea, konkurtsoan deklaratuta egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren pean egotea edo desgaitua izatea, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

c) Erruduntzat jo izanik, hori eragin duen kausa dela-eta Administrazioarekin egindako kontratuen bat suntsitua duena.

d) Legezko ordezkaritza duen pertsona herri administrazioetako langileen bateraezintasun egoera batean egotea edo Hauteskundearen Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsi bat izatea, araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetan.

e) Taldeak osatzen dituzten kideak (2.3 artikulua) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 13. artikuluan edo apartatu honetan aurreikusitako legezko debeku-egoeraren batean egotea.

f) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko legez ezarritako kuota bete ez izana, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.

g) Ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat duten pertsona juridikoak.

2.– Aurreko apartatuaren a), b), c), d), e) eta f) letretan biltzen diren baldintzen justifikazioa eskabide-orian adierazitakoaren arabera egindako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egingo da.

8. oinarria.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– 2026ko deialdiak 1.330.000,00 euro izango ditu esleitura.

2.– Diruz lagundutako EAEko toki-erakundeek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek dirulaguntza honen xede den aurrekontu osoaren % 25 finantzatu beharko dute gutxienez.

3.– Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzak eskabide bakoitzean aurkeztu diren jardueren aurrekontu osoaren % 75 finantzatu ahal izango du, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

4.– Beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek helburu bererako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak ematen badituzte, emandako dirulaguntzaren proiektu/programaren aurrekontu osoa murriztu egingo da.

5.– Erakunde onuradun bakoitzari emandako dirulaguntza ez da inola ere 50.000,00 eurotik gorakoa izango.

9. oinarria.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntza ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek emandako beste laguntza batzuekin.

Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko dena delako jarduera, lehenagotik ere, Laguntza Juridiko, Gizarteratze eta Kulturarteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren katalogoan eskainita badago (Eusko Jaurlaritza) eta hark burutzen badu, ez zaio laguntzarik emango.

2.– Agindu honek erregulatzen duen dirulaguntza bateragarria da, objektu eta helburu berarekin, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek ematen dituztenekin. Edonola ere, dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du dirulaguntzaren objektu den kontratazioaren edo jardueraren erabateko kostua gainditu.

Erakunde onuradunek, horregatik, inguratu dituzten laguntza, diru-sarrera edo baliabide guztiak aitortu beharko dituzte, bai eskaera-unean eskuan dauzkatenak, bai jarduera gauzatu ahala inguratzen dituztenak; eta, beste edozein finantzaketa lortzen badute, berehala jakinarazi beharko dute.

3.– Beste laguntza batzuekin batera jasotzen bada, guztien baturak dirulaguntzaren objektu den kontratazioaren edo jardueraren erabateko kostua gainditzen badu, gainditzen duen zati hori bateraezintzat joko da, eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak emango duen laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da.

Horretarako, irizpide hauek erabiliko dira, gehiegizko finantzaketarik egon ez dadin:

a) Gastu guztiek diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egon behar dute zuzen-zuzenean.

b) Aurkeztutako kostuak izan behar dira beharrezkoak, neurrikoak, eta benetan burututa eta ordainduta behar dute egon.

c) Egiaztatu behar da ez dela gertatzen gastu batek finantzaketa bikoitza izatea laguntza bat baino gehiagorekin.

d) Azkenean egiaztatzen den kostuaren arabera, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu egin daiteke ebazpen-fasean edo justifikazio-fasean.

10. oinarria.— Kudeaketa-organoa.

Agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzaren titularra izango da. Ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze aldera iruditzen bazaio beste jarduketarik egin behar duela, ofizioz egingo du.

11. oinarria.— Balorazio-batzordea.

1.— Balorazio-batzorde horrek hiru kide izango ditu. Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako goi-karguak edo langile publikoak izan beharko dira.

2.— Batzordeko kideen artean ziurtatu behar da gizon-emakumeen kopurua orekatua izango dela, eta denak ere egokiak direla prestutasun, gaitasun eta prestakuntzaz, hargatik inola ere eragotzi gabe martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 3 artikuluen 10.d) apartatuan xedatzen duena, haren bidez onartu baitzen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina.

Kasu horretarako, ordezkaritza orekatua zera da: lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izatea. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkaturik daudenean izango da orekatua.

3.— Balorazio-batzordeak kide hauek izango ditu:

Aitor Eguinoa Isasmendi jauna, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako teknikaria; hitza eta botoa izango ditu.

Laura Tejedor Andrés andrea, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako teknikaria; hitza eta botoa izango ditu.

Miren Uxue Arbe Blanco andrea, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako teknikaria; hitza eta botoa izango ditu, eta batzordeko idazkaria izango da.

Ezin badute etorri, edo gaixo badaude, edo beste zerbaitengatik ezinezkoa baldin bazaie beren eginkizunak betetzea, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako teknikariek ordezkaturik dituzte, Zuzendaritzan duten antzintasuna soilik kontuan hartuta.

Ezin badute etorri, edo gaixo badaude, edo beste zerbaitengatik ezinezkoa baldin bazaie beren eginkizunak betetzea, ordezeko hauek izendatuko dira:

Unai Aspuru Zuazo jauna, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako teknikaria; hitza eta botoa izango ditu.

Francisco Javier de la Fuente Pereda jauna, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako teknikaria; hitza eta botoa izango ditu.

12. oinarria.— Ebazpen-proposamena.

1.— Aurkeztutako eskabideak dagozkien prozeduraz izapidetuko dira. Etorkinen Harrera eta Integrazioko zuzendariak ebatziko ditu, prozeduran planteatu diren gai guztiei dagokien erabakia hartzeaz batera.

2.— Organo kudeatzaileak egingen du ebazpen-proposamena, balorazio-batzordearen espediente eta txostena aintzat hartuta, eta behar bezala arrazoiturik. Bi gauza adierazi beharko ditu: dirulaguntza zein entitate eskatzailerik ematea proposatzen duen, eta zenbatekoa.

3.– Prozeduran erakunde eskatzaileek adierazitakoez bestelako egitateak, alegazioak eta frogak agertzen badira edo kontuan hartzen badira, ebazpen-proposamen hori behin-behinekoa izango da, eta erakunde horiei banan bana jakinarazi eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertu ondoren, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuordeak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du.

4.– Interesdunek adierazitakoez bestelako egitaterik, frogarik edo alegaziorik kontuan hartu behar ez bada, eta, hartara, entzunaldi-izapide hori egitea beharrezkoa ez bada, ebazpen-proposamenak behin betiko izaera izango du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

13. oinarria.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta jakinarazpenaren ondorioak sortuko ditu.

Ebazpenean informazio hau gutxienez jaso beharko da, jendeak jakin dezan: erakunde onuradunen zerrenda, diruz lagundutako jarduerak, eta jarduera horietako bakoitzari zenbat esleitu zaion. Era berean, ukatutako eskabideak ere aipatuko dira, ukatzeko arrazoia adierazita.

Ebazpenak, edonola ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko duen Legean zehazturik dauden baldintzak bete beharko ditu (abenduaren 21eko 20/2023 Legea, 22.3 artikulua).

Beren zerbitzuak mankomunaturik ez dituzten EAEko hainbat tokiko erakundek osatutako talde bat izango balitz onuraduna, agindu honen 2. oinarriko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, hartuko den ebazpenak taldeko kide bakoitzak bere gain hartzen dituen betearazpen-konpromisoak azalduko ditu, baita kide bakoitzak ezarri beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere.

2.– Ebazteko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdiaren agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntza emateko eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 22.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «nire karpeta»ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

14. oinarria.– Banaketa-prozedura eta -irizpideak.

1.– Laguntzak jardueren artean banatzeko prozedura norgehiagoka izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19 artikuluan xedatzen den moduan. Balioespen Batzordeak zehaztuko dio ateratako puntuazioa proiektu edo programa bakoitzari; zehaztu ere, ondoren adierazten diren balioespen-irizpideen arabera.

Izapidetzeko onartutako proiektuak eta programak balioetsi ondoren emango da dirulaguntza, horien arteko lehentasun-hurrenkera bat ezarrita, eta 50 puntu edo gehiago lortzen dutenek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Dirulaguntzak esleitzeko, balorazio-fasean lortutako puntuaziotik eratorritako beheranzko hurrenkera hartuko da kontuan, 8. oinarrian ezarritako laguntza-ehunekoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoaren arabera.

8. oinarrian deialdiari esleitutako hornidura ekonomikoa ez bada nahikoa artikuluko honen aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera hasieran kalkulaturako laguntzak osorik ordaintzeko, laguntza horiek murriztu egingo dira. Hala egiten bada, azkenean ezartzen diren zenbatekoek, aipatu hornidurarekin lotuta, bete egin beharko dute horiek aurrera eraman ahal izateko hasieran kalkulaturako zenbatekoan kopuru orokorrarekiko zuten proportzioa.

2.– Dirulaguntza-lerro honetan aurkeztu eta onartutako proiektuak eta programak balioesteko, honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

2.1.– Immigranteei harrera egiteko proiektu bai sortu berriei bai lehendik daudenei: 20 puntu, gehienez.

2.1.1.– Profesional espezializatuak migratuei zuzeneko arreta ematea: 5 puntu, gehienez.

2.1.2.– Informazioa emateko, nondik nora jo erakusteko, deribatze eta bidean laguntzeko taxaturik dago: 5 puntu, gehienez.

2.1.3.– Sarbide zuzen, doako eta libreko zerbitzua, erroldatzea eskatzen ez duena: 3 puntu, gehienez.

2.1.4.– Atzerriartasunaren arloko aholkularitza juridikoari dagokionez, «Aholku-sarearekin» koordinatzen da: 3 puntu, gehienez.

2.1.5.– Helduen Hezkuntzako Zentroekin eta euskaltegiekin koordinatzea, hizkuntzak (euskara eta gaztelania) ikasteari dagokionez: 3 puntu, gehienez.

2.1.6.– Badu aldi bereko itzulpen-zerbitzua: puntu 1, gehienez.

2.2.– Herriartasunari, kulturartekotasunari edo bizikidetzari buruzko lege eta planen batean ezarritako ildoetan sartzea: 25 puntu, gehienez.

2.2.1.– Enplegua, prestakuntza eta eskola-arrakasta eskuragarri izatea, integratzeko, erabateko herriartasuna lortzeko eta baliabideak mobilizatzeko bideak diren aldetik: 5 puntu, gehienez.

2.2.2.– Euskararen ikaskuntza gizarteratze-mekanismo gisa sustatzea: 5 puntu, gehienez.

2.2.3.– Parte-hartzea, kultura-aniztasuna eta bizikidetzak: 5 puntu, gehienez.

2.2.4.– Diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka: 5 puntu, gehienez.

2.2.5.– Proiektuaren alderdi berritzaileak: 5 puntu, gehienez.

2.3.– Erreferentzia-irizpide hauen betetze-maila: 25 puntu, gehienez.

2.3.1.– Arreta-premia sortu, luzatu edo areagotzea saihesteko esku-hartzeak: 3 puntu, gehienez.

2.3.2.– Familiako eta komunitateko sareetan bermatutako esku-hartzeak, sostengua emateko: 5 puntu gehienez.

2.3.3.– Arreta pertsona bakoitzaren premietara egokitzea: 3 puntu, gehienez.

2.3.4.– Pertsonen eta taldeen autonomia, parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzea beren gizarte-ingurunean: 5 puntu, gehienez.

2.3.5.– Plangintza estrategikoa, komunikazio integratzailea, jakintzaren eraikuntza, enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta inpaktuaren ebaluazioa, bikoizketarik gerta ez dadin: 3 puntu, gehienez.

2.3.6.— Proiektua diseinatu eta gauzatzeko orduan genero-ikuspegia txertatzea: gehienez 6 puntu. Gizarte-inklusioari eta kulturen arteko bizikidetzari dagokionez -hori ere lortu nahi baita deialdi honen bidez- genero-ikuspegia benetan txertatzea ere baloratuko da, honela:

2.3.6.1.— Identifikatzea ea, esku hartu behar denean, zer berdintasun-gabezia berezi dauzkaten emakume migratzaileek: 2 puntu, gehienez.

2.3.6.2.— Identifikatzea ea zer helburu jarri behar diren eta zer jarduketak egin behar diren berdintasun-gabezia horiek murrizteko, edo bultzatzeko gizon-emakumeak berdin-berdin iritsi ahal izatea baliabideetara, zerbitzuetara edo gizartean parte hartzera: 2 puntu, gehienez.

2.3.6.3.— Sexuaren arabera bereizitako jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak sartzea, edo berdintasunaren gaineko eragina neurtzea ahalbidetzen dutenak: puntu 1, gehienez.

2.3.6.4.— Askotariko diskriminazio-egoerak edo kalteberatasun espezifiko egoerak prebenitzeko neurriak: puntu 1, gehienez.

2.4.— Koordinazioa jarduketak hartzen duen eremuko beste eragile sozial eta instituzional batzuekin, direla tokiko, lurraldeko edo autonomiko, eta sektore publikoko beste erakunde batzuekin: 20 puntu, gehienez.

2.4.1.— Tokiko beste eragile sozial eta instituzional batzuekin koordinatzea: 5 puntu, gehienez.

2.4.2.— Probintziako beste eragile sozial eta instituzionalekin koordinatzea: 5 puntu, gehienez.

2.4.3.— Autonomia-erkidegoko beste eragile sozial eta instituzionalekin koordinatzea: 5 puntu, gehienez.

2.4.4.— Sektore publikoko beste eragile sozial eta erakundeekin koordinatzea: 5 puntu, gehienez.

2.5.— Proposamenaren diseinuaren kalitate teknikoa, barnean hartuta diseinuaren egokitasuna, bideragarritasuna eta ebaluagarritasuna: 10 puntu, gehienez.

2.5.1.— Proposamenaren diseinua: 4 puntu, gehienez.

2.5.1.1.— Egoera edo arazoa, horren sorburuko arrazoiak, eragiten dituen ondorioak eta esku-hartzearen xedeko biztanleria identifikatu eta deskribatzea: 1 puntu, gehienez.

2.5.1.2.— Helburu orokorrak eta espezifikoak (zehatzak, neurgarriak, behagarriak, egingarriak eta ebaluagarriak) identifikatzea, espero diren emaitzak adieraztea eta jardueretik harreman efikaz eta efizientea izatea: 1 puntu, gehienez.

2.5.1.3.— Egingo diren jardueren egitura eta tenporalizazioa: 1 puntu, gehienez.

2.5.1.4.— Jarduerak egiteaz arduratuko diren pertsonak identifikatzea, bai eta haien gaitasuna, eskarmentua eta proiektuari eskainiko dioten denbora ere: puntu 1, gehienez.

2.5.2.— Ebaluazioa: 3 puntu, gehienez.

2.5.2.1.— Ebaluazio-sistema eta adierazle neurgarri eta esanguratsuak zehaztea, bai eta ezarritako adierazleei dagokien informazioa lortzeko erabiliko diren tresnak eta metodoak ere: 3 puntu, gehienez.

2.5.3.— Bideragarritasuna: 3 puntu.

2.5.3.1.— Proiektua edo programa erakundearen estrategia edo plangintza handiago batean kokatzea: 1 puntu, gehienez.

2.5.3.2.– Aurreikusitako gastuen eta bitartekoen arteko koherentzia: 1 puntu, gehienez.

2.5.3.3.– Erabilitako bitartekoen eta aurreikusitako emaitzen arteko koherentzia: 1 puntu, gehienez.

15. oinarria.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Entitate onuradunen betebeharrak honako hauek dira:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrela, dirulaguntza eman zaiela EHAA n argitaratu eta hamar eguneko epean erakunde onuradunek dirulaguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, dirulaguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Dirulaguntza emateko oinarritzat hartutako jarduera edo jarduerak egitea.

c) Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea eta Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritza diruz lagunduta garatuko den jarduera edo garatuko diren jarduerak egiaztatzea onartzea.

d) Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzaren aurrean betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea, baita jarduera garatu dela edo jarduerak garatu direla, eta dirulaguntza ematearen helburua betetzea.

e) Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzaren egiaztapenak onartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura jasotako laguntzak eta dirulaguntzak kontrolatzeko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten dituen jarduketak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araubide zehatzean arautzen direnak ere.

f) Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzari jakinaraztea beste administrazio edo entitate publiko batzuei edo entitate pribatuei xede bererako aurkeztutako laguntza-eskaera guztiak eta haiek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabide guztiak.

g) Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar objektibo zein subjektiboetan gertatzen diren aldaketa guztiak.

h) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta edukitzea, onuradunari kasu bakoitzean aplikatu dakiokeen merkataritzako eta sektoreko legerian eskatzen den bezala, baita deialdi-agindu honetan eskatzen diren erregistro espezifikoak eta kontabilitateko egoera-orriak ere, egiaztatze eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabili ahal izateko.

i) Jasotako funtsak nola erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektrikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketak aplikatu ahal zaizkien aldiak.

j) Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzaren erakunde marka jartzea hori inprimatzea edo erakustea posible den diruz lagundutako jardueren publizitate edo propaganda guztian, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua (1999ko urriaren 26ko EHAA, 205. zk.) arautzen duen Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 46/2017 Ebazpenean, apirilaren 4koa, (2017ko apirilaren 12ko EHAA, 72. zk.) ezarritakoaren arabera. Marka hori Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzari eska dakioke. Nolanahi ere, diruz lagundutako proiektuaren ondorioz sortzen den dokumentuan, Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzaren logotipoa eta Migratzaileko Euskal Itun Sozialaren logotipoa agertu beharko dira. Jardueraren publizitatean edo dirulaguntzaren argitalpenean adieraziko da jardueraren edukien ardura diruz lagundu den erakunde publikoak hartu duela.

k) Agindu honetan edo dirulaguntzetan aplikatu daitekeen araudian aurreikusten diren kasuetan jasotako funtsak itzultzea.

l) Administrazioak laguntzen ordainketa egin ahal izateko, erakunde-eskatzailleak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan egon beharko du. Erakundea ez badago han erregistratuta edo Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroko bankuko datuak aldatu nahi baditu, <https://www.euskadi.eus/alta-modificacion-datos-terceros/web01-tramite/es/> webgunearen bitartez egin beharko du.

m) Diruz lagundutako jardueran edo jardueretan egin nahi den edozein aldaketa idatziz jakinaraztea, horretarako espresuki Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzaren onarpena izanda.

n) Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzari bidaltzea agindu honen 17. oinarrian ezarritzen diren frogagiriak, eta horien jarraipenean eta ondoko ebaluazioan laguntzea.

o) Adierazitako ezaugarriak dituen dirua itzultzeko prozeduraren bat edo prozedura berresleren bat hasiz gero, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzari jakinaraztea.

p) Eta, orokorrean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 14. eta 42. artikuluetan ezarritako beste edozein.

16. oinarria.— Dirulaguntza ordaintzea.

1.— Laguntzen ordainketa zatikatu egingo da: % 70 ordainduko da 15.a) oinarrian ezarritako epea igarotakoan, berariaz uko egin ez bazaio eta diruz lagundutako ekintzen gutxienez % 70i dagokion gastuaren betearazpena justifikatu eta egiaztatu ondoren. Justifikazio hori 2026ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko da.

Gainerako % 30a 2027ko ekitaldian ordainduko da, justifikatzeke geratzen diren gainerako ekintzak 2027ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu ondoren.

Urte anitzeko laguntza denez, emandako laguntzaren % 100 ez da inola ere ordainduko 2027ko urtarrilaren 1a baino lehen.

17. oinarria.— Dirulaguntzen justifikazioa.

1.— Erakunde onuradunek diruz lagundutako ekintzen % 70i dagokion gastua justifikatu beharko dute 2026ko abenduaren 31 baino lehen, eta gainerako % 30a, berriz, 2027ko martxoaren 31 baino lehen.

2.— Aurreko paragrafoan aipatzen diren ondorioetarako, entitate onuradunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Diruz lagundutako kontratazioari edo jarduerari buruzko deskribapen- eta ebaluazio-memoria, eredu normalizatuaren arabera egin; eredu eskuragarri dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan <https://www.euskadi.eus/servicios/0606409> eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako aginduan.

Memoria horretan justifikazio-kontu bat, hau da, guztizko gastuaren dokumentu egiaztatzaile guztiak biltzen dituen erantzukizunpeko adierazpen bat egon beharko du, behar bezala sinatuta eta zigilatuta. Aitorpen horretan, honako hauek adieraziko dira: dokumentuaren nondik norakoak, identifikazioa, igorlea, kontzeptua, data, zenbatekoa eta, hala badagokio, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzak emandako zenbatekoari egozten zaion ehunekoa eta zenbatekoa.

b) Erakunde onuradunaren organo eskudunaren ziurtagiria, 2026an diruz lagundutako jarduerarako beste finantzaketa-iturri batzuk existitzen diren edo ez jakiteko.

c) Jarduerarekin lotuta argitaratu den edo jendeari zuzenduta dagoen dokumentazioa, esaterako, prentsa-ebakinak edo hizkuntza-bertsio ezberdinen adierazgarriak, euskarri fisikoan edo magnetikoan, diruz lagundutako jardueraren garapenean sortutako material bakoitzaren inguruan, eta publizitate bidez garbi adieraziz programen finantzaketa publikoa dela.

3.— Emandako dirulaguntzaren kontura egindako gastuen justifikazioa egiteko, dokumentu hauek onartuko dira:

a) Erakunde onuradunaren organo eskudunaren ziurtagiria, diruz lagundutako jardueraren ondoriozko guztizko kostu ekonomikoa jasoko duena.

b) Erakunde onuradunaren izenean egindako fakturak. Faktura orok 2026an egina beharko du izan, bestela ez du balioko.

c) Ziurtagirien edo banku-zorpetzeagatiko kargu-dokumentuen bidez justifikatutako ordainagiriak, betiere finantza-erakundeek eginak badira eta faktura bati dagozkion datuak biltzen badituzte, zenbakia eta seriea izan ezik.

4.— Dirulaguntza era egokian aplikatzen dela ziurtatzeko, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak; Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egokiak diren inspektzioak, jarraipenak eta kontrolak egin ditzakete.

18. oinarria.— Justifikazioa zuzentzea.

Dirulaguntzaren justifikazioak eta justifikazio-agiriez ez badituzte betetzen agindu honetan jasotako baldintza guztiak, edo osatugabeak edo akastunak badira, entitate interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean hutsa zuzentzeko edo nahitaezkoak diren dokumentuak aurkezteko; eta adieraziko zaio, hala egin ezean, dirulaguntza itzularazteko prozedurari ekingo zaiola, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legean aurreikusita dagoen moduan (abenduaren 21eko 20/2023 Legea, 36. artikulua eta hurrengoak).

19. oinarria – Betebeharrak ez-betetzea eta ardurak.

1.— Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako dirulaguntzak zeharo edo partzialki Agindu honetan aurreikusten ez diren jardueretarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezartzen diren betebeharrak urratzea, edo, hala badagokio, dirulaguntzak ematean ezartzen direnak ez betetzea.

c) Aurkeztutako proiektuan dirulaguntza-programa honetako Zuzendaritza kudeatzaileak baimendu ez duen edozein aldaketa egitea.

d) Diruz lagundutako proiekturako ezarritako epeak gainditzea, ez badago hori aldatzeko baimenik.

e) Dirulaguntzaren Likidazioaren Ebazpenean diru-kopururen bat itzultzeko agintzen bada, garaiz ez itzultzea (ezarritako epean).

f) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako beste edozein ez-betetze.

2.— Aurreko puntuan adierazten den egoeraren bat gertatu dela egiaztatzen baldin bada, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, batetik, jasotako kopuruak eta, bestetik,

sortutako berandutze-interesa, hala baitago aurreikusita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legean (20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen.

3.– Itzuli beharreko zenbatekoa irizpide hauek kontuan hartuz zehaztuko da:

a) Aurreikusitako helburuak betetzen ez badira edo jarduerak zeharo gauzatzen ez badira, baina erakunde onuraduna guztiz betetzera nabarmen hurbiltzen bada eta zalantzarik gabe konpromisoak betetzera daraman jarrera duela frogatuz gero, lorpen-maila balioztatuko da, eta dirulaguntzaren zenbatekoa maila horrekiko proportzionala izango da.

Aipatutako ondoreetarako, erakundea horiek guztiz betetzera nabarmen hurbiltzen dela ulertuko da gutxienez programako proiektuaren % 80a gauzatu bada, betiere baremaziorako kontuan hartu diren irizpide objektiboak mantendu eta horiek betetzen badira.

Lehenago aipatutako kasuetan, itzuli beharreko zenbatekoa bete ez den benetako ehunekoarekin proportzionala izango da.

b) Agindu honetan arautzen diren laguntzak kudeatzen dituen zuzendaritzak baimena eman gabe laguntzaren eskabidean eta dokumentazio osagarrian adierazitako jarduketak aldatzen badira, aldatutako jarduketei dagozkien zenbatekoak itzuli beharko dira.

c) Laguntzak justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, jaso eta justifikatu gabeko laguntzak itzuli beharko dira eta, behar denean, jasotzeko dauden zenbatekoak kobratzeko eskubidea galduko da.

20. oinarria.– Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, horren berri izan bezain laster jakinarazi beharko zaio Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzari, eta, betiere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

2.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, betiere jotzen baldin bada bete direla dirulaguntzaren helburua, onuraduna izateko baldintzak eta ezarri diren betebeharrak; aldi berean beste administrazio batzuen edo erakunde publiko zein pribatuen laguntzak nahiz dirulaguntzak lortuz gero; eta, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legean ezarritako gainerako baldintzak baldin badira aldatu (abenduaren 21eko 20/2023 Legea, 25.1 artikulua), dirulaguntza emateko ebazpena alda daiteke.

Adierazitako zentzuan, dirulaguntzaren objektua bete dela ulertzen da gutxienez proiektu edo programa osoaren % 80 bete denean eta betiere baremoa ezartzeko kontuan hartu diren irizpide objektiboak mantendu eta bete badira.

3.– Horretarako, Balioespen Batzordeak aztertu eta balioetsi eta gero, dagokion aldaketa-ebazpena emango da, zeinaren bitartez egokituko baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, dirulaguntza emateko ezarritako mugak eta irizpideak aplikatuta; eta, hain zuzen ere, erakunde onuradunak soberan jasotakoa itzuli beharko du, halakorik bada, dagozkion berandutze-interesak gehituta, dirulaguntza ordaindu zitzaionetik hasita, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

21. oinarria.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Erakunde eskatzaileak eskabide horretan atzera egiteko aukera izango du. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordeak, ebazpen bidez, atzera egite hori onartu egingo du, eta amaitutzat emango du prozedura.

2.— Emandako laguntzari uko ere egin ahal izango dio erakunde onuradunak. Emandako dirulaguntza lehenengo onartu egin behar da, eta gero egin dakioko uko. Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuordeak, ebazpen bidez, berriaz onartuko du uko egite hori, eta amaitutzat emango du prozedura.

Uko-egitea onartu ondoren, erakunde onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez aitortutako eskubidea, bai eta emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horiek ordaindu zirenetik sortutako interesak itzuli egin beharko ditu.

22. oinarria.— Hitzarmena.

Onartutako dirulaguntza emateko eta onartzeko, agindu honen III. eranskinean adierazitako hitzarmena sinatu beharko dute Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak batetik, eta, bestetik, diruz lagundutako toki-erakundeek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek, ebazpena interesdunei jakinarazi eta hilabeteko epean.

23. oinarria.— Jarraipen-batzordea.

1.— Aurreko oinarrian aipatutako hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzeko (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren eta toki-erakundeen, tokiko organismo autonomoen eta tokiko merkataritza-sozietateen artean sinatuta dago), jarraipen-batzorde bat eratuko da. Honela egongo da osaturik:

– Etorkinen Harrera eta Integrazioko zuzendaria edo hark aukeratzen duen ordezkoa; presidentea izango da.

– Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzako bi teknikari. Bietako bat idazkaria izango da.

Batzorde hori urtean behin bilduko da gutxienez, hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak koordinatzeko eta hitzarmenaren beraren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko.

2.— Jarraipen Batzordeak honako eskuduntza hauek izango ditu:

– Hitzarmena betetzeak dakartzan interpretazio- eta betetze-arazoak konpontzea. Halaber, sinatu duten alderdiei hitzarmenaren edozein aldaketa proposatzea.

– Begiratzea laguntzak zertan erabiltzen diren, eta egiaztatzea ez dagoela jarduketan gainfinantzetarik.

3.— Hartu beharreko neurriak hartuko dira emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izan dadin, hala egin behar dela jartzen baitu Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.10 artikuluan (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua).

II. ERANSKINA

IMMIGRAZIOAREN ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK
2026

Instrukzio-argia: Etorraren Harrera eta Integrazio Zuzendaritza

ESKAERA

DATU PERTSONALAK

☐ Espediente honen pertsona/erakunde interesdun moduan jarduten dut ☐ Honako honen ordezkari moduan jarduten dut:.....

Identifikazio-dokumentua..... Zenbakia.....

Izena.....

Lehen abizena..... Bigarren abizena.....

Sexua.....

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

Jakinarazpenen hartzailea

Administrazioak espediente hau izapidetzen den bitartean bidaltzen dituen jakinarazpenak honako honentzat izango dira:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako bidea

Bide elektronikoa: Nire karpeta izeneko jakinarazpenen eta komunikazioen postontzira bidaliko dira. Hor sartzeko, identifikazio elektronikoko baliabide bat behar da.

Soilik bide elektronikoa: 10 egun naturaletan ez baduzu jakinarazpen elektroniko bat eskuratzen, baztertu egin duzula ulertuko da, hau da, izapidea egin dela ulertuko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

Honako datu hauek erabiliko dira posta elektroniko edo SMS bidezko ohartarazpenak bidaltzeko.

Helbide elektronikoa.....

Telefono mugikorra.....

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza.

Zuk aukeratutako hizkuntzan egongo dira idatzita posta elektronikoaren bidez eta abisu-mezuen bidez jasoko dituzun jakinarazpenak eta komunikazioak.

Euskara ☐Gaztelania ☐

Datuak erabiltzeko baimena

☐ Nire jakinarazpenetarako eta ohartarazpenetarako datuak, orokorrean, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin ditudan harremanetan erabiltzea nahi dut.

☐ Nire jakinarazpenetarako eta ohartarazpenetarako datuak eskusiboki espediente hau kudeatzeko erabiltzea nahi dut.

Harremanetarako datuak

Izena

Lehenengo abizena

Bigarren abizena

Erakundean duen lanpostua edo kargua

Telefona

Posta elektronikoa

Lurraldeari buruzko datuak

Udalerriko edo udalerri-elkarteko biztanle-kopurua, 2026ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera:

Udalerrian erroldaturik izaki, jatorria Europar Batasunean edo Europako Esparru Ekonomikoan ez dutenen kopurua, 2026ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera:

Udalerrian erroldaturik izaki, jatorria Europar Batasunean edo Europako Esparru Ekonomikoan dutenen kopurua, 2026ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera:

Arriskuan edo babes gabe egon eta esku-hartze espezifikokoaren beharrean den kolektiboa, baldin balego:

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen lurraldea/probintzia

Lurraldea / Probintzia.....

Aurrekariak:

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarekin koordinatzea (adierazi nola egingo den, zehazki Etorriaren Harrera eta Integrazio Zuzendaritzarekin eta/edo horren mende dauden zerbitzuekin).

Sareko lana (foro eta sareetan parte hartzea...), bai Etorriaren Harrera eta Integrazio Zuzendaritzak, bai beste erakunde publiko edo pribatu batzuek:

Deskribapen laburra: 2025ean burututako proiektuak eta guztira egindako gastua.

Dirulaguntza zer proiektu edo programatarako eskatzen den

Proiektuaren edo programaren izena.

Esku-hartzearen helburua.

Dirulaguntza zer jardueratarako eskatu den, jarduera horrekin erantzun nahi zaion egoeren diagnosia edo ebaluazioa (baita deskribapena ere), eta jardueraren justifikazioa.

Proiektuaren barruko jardueren deskribapen laburra (proiektuak jarduera bat baino gehiago hartzen badu). Jarduera bakoitzaren kostua eta jarduera bakoitzerako eskatutako zenbatekoa adierazi behar dira.

Dirulaguntza zer jardueratarako eskatu den, jarduera horri aurreikusi zaion garapenaren deskribapena (edukiak, faseak, lanak, kudeaketa-prozesuak, kokapena, tenporalizazioa eta abar).

Aurreikusitako hartzaileak (kuantifikazioa eta karakterizazioa).

Proiektu edo programaren helburu orokorrak eta zehatzak.

Jarduera aurrera ateratzeko behar diren giza baliabideak: kuantifikazioa eta ezaugarriak (prestakuntza, kualifikazioa eta, hala badagokio, aurreikusten diren pertsonen identifikazioa). Adierazi erakunde eskatzaileak pertsona horiek zuzenean kontratatuko dituen ala ez.

Jarduera gauzatzeko behar diren baliabide materialak eta azpiegiturak: deskribapena eta kuantifikazioa, jada eskura dauden ala ez adierazita.

Jardueraren ebaluazioari aurreikusi zaizkion prozedura eta irismena.

Jardueren aurrekontu banakatu edo xehakaturia, hauek adierazita: zer zati finantzatu nahi den dirulaguntza honen bitartez, eta zer finantzaketa-iturri edo -modu dauzkaten aurreikusita edo behar diren gainerakoa finantzatzeko (gastu orok aurrekontu baten bermea izan behar du).

Etorkinei harrera egitearekin lotutako jarduerak, sortu berriak edo lehendik daudenak, horrelako lanketak barne: profesional espezializatuen zuzeneko arreta; informazioaren, orientazioaren, bideratzearen eta laguntzaren inguruko artikulazioa; sarbide zuzeneko, doako eta libreko zerbitzuak, eroldatzerik behar izan gabe; "Aholku-sarearekin" koordinatzea; Helduen Hezkuntzako Zentroekin eta euskaltegiekin koordinatzea euskara eta gaztelania ikasteari dagokionez; eta/edo aldibereko itzulpen-zerbitzuak.

Enplegua, prestakuntza eta eskola-arrakasta eskuragarri izatea, integratzeko, erabateko herritartasuna lortzeko eta baliabideak mobilizatzeko bideak diren aldetik.

Euskararen ikaskuntza gizarteratze-mekanismo gisa sustatzea.

Parte-hartzea, kulturantzatasuna eta bizikidetzatza.

Diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka.

Proiektu edo programaren alderdi berritzaileak.

Arreta-premia sortu, luzatu edo areagotzea saihesteko esku-hartzeak.

Familiako eta komunitateko sareetan bermatutako esku-hartzeak, sostengua emateko.

Arreta pertsona bakoitzaren premietara egokitzea.

Pertsonen eta taldeen autonomia, parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzea beren gizarte-ingurunean.

Plangintza estrategikoa, komunikazio integratzailea, jakintza eraikuntza, enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta inpaktuaren ebaluazioa, bikoizketarik gerta ez dadin.

Genero-ikuspegia.

Jarduketak hartzen duen eremuko beste eragile sozial eta instituzional batzuekin koordinatzea, direla tokikoak, lurraldekoak edo autonomikoak, edo beste eragile sozial batzuekin edo sektore publikoko beste erakunde batzuekin.

Aurreikusitako jarduerak

Hasiera-eguna

Amaiera-eguna

Proiektu edo programarako diru-sarrerak:

Erakundearen ekarpena:

Zenbatekoa:

Ehunekoa:

Erabiltzaileen ekarpena:

Zenbatekoa:

Ehunekoa:

Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzari eskatu zaio:

Zenbatekoa:

Ehunekoa:

Beste diru-sarrera batzuk:

Kontzeptua:

Zenbatekoa:

Ehunekoa:

Diru-sarrerak, guztira (berretsiak edo eskatutakoak):

Proiektu edo programaren gastuak:

Profesional independenteen zerbitzuak:

Zenbatekoa:

Materialak:

Zenbatekoa:

Alokairuak eta errentamenduak:

Zenbatekoa:

Argitalpenak eta komunikazio-ekintzak:

Zenbatekoa:

Bestelako gastuak:

Kontzeptua:

Zenbatekoa:

Gastuak guztira:

Diru-sarrerak eta gastuak bat ez badatoz, zergatia azaldu:

Helburu berbererako eskatutako beste dirulaguntzak:

Organismoa:

Kontzeptua:

Eskatutako zenbatekoa:

Emandako zenbatekoa:

Erantzukizunpeko adierazpenak

Adierazten dut ezen erakunde eskatzaileak:

Bateragarritasun adierazpena

☐ Ez dela laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari, xede eta helburu bererako, ez administrazio publikoetatik ez erakunde pribatuetatik.

☐ Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntza eskatu diola eta hark eman egin diola (puntu honetako datuak «Beste dirulaguntza batzuk» izeneko atalean zehaztu behar dira).

☐ Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntza eskatu diola eta ebazpena emateke dagoela (puntu honetako datuak «Beste dirulaguntza batzuk» izeneko atalean zehaztu behar dira).

Zigor-adierazpena

☐ Ez duela zehapenik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

☐ Ez du inolako lege-debekurik dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea galarazten dionik; bereziki, sexu-bereizkeriatatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik jarritakorik.

☐ Enpresak betetzen du Estatuko legedia, eta badu berdintasun-plana edo hartuak ditu hartu beharreko neurriak sexu-jazarpenik edo sexuan oinarritutako jazarpenik gerta ez dadin, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legerian ezarritako baldintzetan.

☐ Itzultze- edo zehapen-prozedura oro amaitu duela dagoeneko.

☐ Ez duela borondatezko konkurtso-deklarazioa eskatu, ez dela edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo, ez dagoela konkurtsoan deklaraturik -salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek-, esku-hartze judizialaren pean ez dagoela edo ez dela izan desgaitua, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

☐ Ez dut eragin, kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik, administrazioarekin egindako ezein kontraturen suntsiarazpen irmoa.

☐ Legezko ordezkaritza duen pertsona ez dagoela sartuta administrazio publikoetako langileen bateraezintasunetako batean edo ez dela Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsietakoa, araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetan.

☐ Erakunde eskatzailea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta berorren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasiera eman zaion edozein itzulketa- edo zigor-prozeduratan.

☐ Erakunde eskatzailea ez dagoela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 13.1 artikuluan ezartzen diren onuradun izateko galarazpenen batean sartuta.

- ☐ Erakunde eskatzaileak betetzen dituela indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.
- ☐ Erakunde eskatzaileak baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa eta Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean.
- ☐ Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharrak horiek betetzeko aitortzen edo baliatze horri dagokion denbora guztian.
- ☐ Egiazkoak eta ondo osatuak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten duten dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, orduan ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Aurkeztu nahi duzun dokumentazioa

- ☐ Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren eta 2026ko urtarrilaren 1ean udalerrian edo udalerrietan errolatuta dauden etorkinen kopuruaren ziurtagiri ofiziala, etorkinen jatorria, sexua eta adina adierazita. Biztanleria guztia kontuan hartuta osatzen duen ehunekoa adieraziko da.
- ☐ Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak diren eta 2026ko urtarrilaren 1ean udalerrian edo udalerrietan errolatuta dauden etorkinen kopuruaren ziurtagiri ofiziala, etorkinen jatorria, sexua eta adina adierazita. Biztanleria guztia kontuan hartuta osatzen duen ehunekoa adieraziko da.
- ☐ Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten bestelako dokumentuak, betiere deialdi honetan aurreikusitako laguntza-eskabidea aztertzeko interesgarri bada.
- ☐ Udalbatzaren edo udalbatzen Erabakia, zeinaren bidez arlo horretara diru kopuru bat bideratzen den eta diru kopuru hori zehazten den, eta/edo dagokion erakundean fede publikoa duen pertsonaren edo erakundearen legezko ordezkariaren ziurtagiria, erakunde eskatzaileak immigrazio programetara bideratuko duen diru kopurua adierazita.
- ☐ Hala badagokio, 2025eko urtarrilaren 1ean arriskuan edo babesik gabe daudela-eta berariazko esku-hartzea behar duen kolektibo bat izatearen ziurtagiri ofiziala.
- ☐ Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan errolatuta dauden atzerritar etorkinei gizarte zerbitzuek denek batera harrera egiteko modua ematen duen zerbitzua den artean emateko elkarte eratzeko akordioa (baldin erakunde eskatzailea udalerrien bilkura bada).

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean begiratuta:

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzea.

Zerga-betebeharrak egunean edukitzeari buruzko datuak (foru-aldundiak).

Gizarte Segurantzako ordainketa-betebeharrak egunean edukitzea (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari galdetuta).

□ EZ DUT NAHI prozedura honetako instrukzio-organoak ofizioz ezer egiaztatzerik (39/2015 Legearen 28. artikulua)

Horren aurka eginez gero, aipatu erakunde eskudunek igorritako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Aurkeztutako datuak erkatu eta behar diren egiaztapenak egin ditzake administrazioak.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Datu pertsonalak tratatu egingo dira eta honako izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: *Immigrazio-arloko laguntzak eta dirulaguntzak*

Arduraduna: Etorchinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritza; Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

Helburua: Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntza ekonomikoak sektore publikoko erakundeentzat.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak: Ez dago aurreikusita daturik jakinaraztea.

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia.

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/110400-cap2-eu.shtml

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

IIA. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO-MEMORIA
DIRULAGUNTZA ESKAERA IMMIGRAZIOAREN ETA KULTURA ARTEKO BIZIKIDETZAREN
ALORREKO JARDUERENTZAT

ESPEDIENTEA:

KONTZEPTUA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA:

ERAKUNDE ESKATZAILEA:

1.- INFORMAZIO OROKORRA

1.1.- Jardueraren iraupena:

Hasteko aurreikusitako eguna:

Benetan zer egunetan hasi den:

Aurreko datak ez badatoz bat, azaldu arrazoia:

Amaiera-data:

Gauzatze-aldi osoa:

1.2.- Finantzaketa:

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren dirulaguntza.

Bestelako dirulaguntzak (adierazi)

Erakundearen ekarpena

Erabiltzaileen ekarpena

Beste diru-sarrera batzuk (zehaztu)

JARDUERAREN KOSTUA, GUZTIRA

1.3.- Diruz lagundutako jarduera diseinatzeko, egikaritzeko eta ebaluatzeko prozesuan parte hartu duten langileek egindako funtzioak (egindako funtzioak, dedikazio-denbora eta kontratazio-harremana)

1.4.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak eta/edo haren mendeko zerbitzuek 2026an sustatutako sare, foro, topaketa, jardunaldi eta antzekoetan parte hartzea.

1.5.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarekin koordinatzea (adierazi koordinazio hori nola egin den Sailarekin, zehazki Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzarekin eta/edo haren mende dauden zerbitzuekin).

1.6.- 2026an egindako proiektuen deskribapen laburra eta guztira egindako gastua.

--

1.7.- Proiektuaren eragina eta proiektuak Immigrazioaren aldeko Itun Sozialaren balioekin duen lotura.

--

2.- JARRAIPEN TEKNIKOA

2.1.- Labur azaldu nola garatu den jarduera bakoitza. (Azaldu jarduera aurreikusi zen moduan egin den, hura egiteko izan diren laguntzak, zailtasunak eta, halakorik izan bada, aurreikusicatko jardueretikiko aldaketak. Zehaztu nola egin den jarduera bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa).

--

2.2.- Jardueraren helburuaren lorpena (azaldu nola lagundu duen jarduerak aurreikusicatko helburua lortzen).

--

2.3.- Emaitzak lortzea (deskribatu aurreikusicatko emaitza, hori neurtzeko erabilitako adierazleak eta haren lortze-maila)

1. EMAITZA:

Adierazleak:

Iruzkinak:

--

2. EMAITZA:

Adierazleak:

Iruzkinak:

--

3. EMAITZA:

Adierazleak:

Iruzkinak:

--

4. EMAITZA:
Adierazleak:
Iruzkinak:

5. EMAITZA:
Adierazleak:
Iruzkinak:

2.4.- Egindako jardueren zerrenda

Aurreikusitako jarduketa.	Amaitua	Egin gabea
Aurreikusi gabeko jarduera		

2.5.- Jardueren kronograma eguneratzea (zerrendatu 2.4 apartatuan deskribatutako jarduerak, eta markatu x batekin jarduera bakoitza zein hilabetetan egin den)

Jarduera	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.

3.- BALIOESPENA (jardueretarako laguntzen kasuan bakarrik bete behar da)

3.1.- Jardueraren balioespen orokorra (Jardueraren alderdirik garrantzitsuenak balioetsi: egindako jardueren bidez lortutako emaitzak eta helburuak, aurrekontu-betetzea, esku-hartzearen hartzaila izan diren pertsonen partaidetza, etorkizuneko esku-hartzeetan hobetu behar diren gauzak, etab.).

--

3.2. - Genero-ikuspegia (adierazi nola baliatu den genero-ikuspegia jardueraren ziklo osoan, hots, nola egin den emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta premia desberdinen kontsiderazio sistematikoa, eta nola barneratu diren desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jardun berariazkoak).

--

3.3.- Koordinazioa beste gizarte-erakunde eta erakunde publiko batzuekin (adierazi nola gauzatu den jardueretan beste erakunde pribatu eta publikoekiko koordinazioa, eta aipatu etorkizuneko lankidetzak aukerak)

--

3.4.- Proiektuaren eragina eta proiektuak Immigrazioaren aldeko Itun Sozialaren balioekin duen lotura.

--

4.- JARRAIPEN EKONOMIKOA

4.1.- Betetako aurrekontuaren laburpena

Finantzatzaileak Partidak	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Zuzendariorde	Beste dirulaguntza batzuk (zehaztu)	Entitate eskatzailea	Beste batzuk	GUZTIRA
Profesional independenteen zerbitzuak					
Materialak					
Alokairuak eta errentamenduak					
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak					
Bestelako gastuak (zehaztu)					
GUZTIRA					
Guztizko kostuekiko ehunekoa					

JUSTIFIKAZIO KONTUA. Erantzukizuneko aitorpena, jardueretan egindako gastu osoa egiaztatzen duten agirien zerrenda dakarrena. Hala badagokio, Etorkinen Harrera eta Integratioko Zuzendaritzatik jasotako zenbatekoari egotzitako ehunekoa eta zenbatekoa adierazi behar dira.

GASTUAK								
Kop.	Dokumentuaren izaera	Identifikazioa	Kontzeptua	Igorlea	Data	Zenbatekoa	Egotzitako %	Egotzitako zenbatekoa
1								
2								
...								
GASTUAK, GUZTIRA								

Taula hau erreferentziatzeko dokumentu gisa erantsi da, baina beste formaturen batean ere aurkez daiteke; betiere, informazio baliokidea jasotzen badu eta erakundea ordezkatzeko duen pertsonaren sinadura eta erakunde onuradunaren zigilua baldin baditu.

III. ERANSKINA

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA) ETA «UDALA» EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALAREN, «ERAKUNDE AUTONOMOA» EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOEN EDO «TOKIKO MERKATARITZA-SOZietatea» EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO MERKATARITZA-SOZietateen ARTEKOA, 2026. URTERAKO, IMMIGRAZIOAREN ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZAREN ARLOKO JARDUERAK GARATZEKO

Vitoria-Gasteiz, 2026ko.....ren.....(e)an.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, Nerea Melgosa Vega, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburua, hala izendatua lehendakariaren ekainaren 24ko 29/2024 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta ordezkoko gisa, Gobernu Kontseiluak ekainaren 23ko bilkuran hartutako erabakiak ematen dion ahaldunen baliatuz.

Bestetik, «Udaleko» alkatea, «Tokiko Erakunde Autonomoko» presidentea, «Tokiko Merkataritza Sozietateko» presidentea, XX (e)k izendaturik eta XX (e)k baimendurik hitzarmen hau sinatzeko.

Aldeek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, «Udalaren», «Erakunde Autonomoaren» edo «Tokiko Erakunde Autonomoaren» izenean eta ordezkoko gisa dihardute, legez egotzitako eskumenak erabiliz. Halaber, elkarri aitortzen diote badaukatela hitzarmen honetan jasotzen dena betetzeko legimititate eta gaitasun nahikoa. Bada, helburu horrekin, honako hau

ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa.– Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren 2026ko.....aren...(e)ko Aginduaren bidez (2026ko.....aren...(e)ko EHAA,.... zk.), deialdia egin zitzaien EAEko udalei, EAEko tokiko erakunde autonomoei edo EAEko tokiko merkataritza-sozietateei laguntza-eskabideak aurkez zitzaten 2026rako, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jardueren garapena finantzatzeko.

Bigarrena.– «Udala»ko Udalak, «Tokiko erakunde autonomoa» tokiko erakunde autonomoak edo «Tokiko merkataritza-sozietatea» tokiko merkataritza-sozietateak aurkeztu duela eskabide hori, aurreko apartatuan aipatutako aginduan ezarritako betekizunekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak, aipatutako aginduan xedatutakoa oinarri hartuta, onartu egin du «Udala»ko Udalak, «Tokiko erakunde autonomoa» tokiko erakunde autonomoak edo «Tokiko merkataritza-sozietateak» Tokiko merkataritza-sozietateak aurkeztutako eskaera, eta harekin sinatzen du hitzarmen hau. Hitzarmena honako klausula hauen arabera arautzen da:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Lege-esparrua.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren 2026ko..... ren.....(e)ko Aginduak ezarri bezala dago eratuta hitzarmen hau, agindu horretan onartu baitzen zer oinarri bete behar diren laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-erakundeei, tokiko erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta orobat agindu horren bidez egiten baita laguntza horietarako deialdia 2026. urterako.

Bigarrenena.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea da immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak egiteko edo gauzatzeko emandako laguntza ekonomikoa bideratzea, 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Hirugarrena.– Gauzatu beharreko ekintzak.

Laguntza ekonomikoa zer ekintzatarako eman den, bada, ekintza horiexek dira egin beharrekoak, betiere aurkeztutako eskabidean oinarrituta eta aipatutako aginduko 13.1 oinarriaren arabera. Laguntza emateko ebazpenean bertan egon behar du zehazturik ekintzok zeintzuk diren, hitzarmena sinatu baino lehenagotik.

Ekintza horiek, nolanahi ere, Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planaren (2022-2025) testuinguruan kokatzen dira, Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 17.1.35 artikuluan aurreikusitakoaren esparruan.

Ekintzok ezin badira kokatu udalen eskumena noraino iristen den lege zehazturik daukan ezein arlotan,

Migraziorako Euskal Itun Soziala euskal gizartean hedatzeak eskatzen duenarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinak izango dira hartzaileak zuzen-zuzenean.

Laugarrena.– Zer erakunderentzat diren.

Dirulaguntzaren hartzaile zuzena EAEko Udala, EAEko Tokiko Erakunde Autonomoa edo EAEko Tokiko Merkataritza Sozietatea dira.

Bosgarrena.– Aldeen ekarpenak.

Helburuak lortzeko eta proiektatutako ekintzak gauzatzeko, alderdi sinatzaileek ekarpen eta konpromiso hauek hitzartu dituzte:

1.– «Udala» Udalak, «Tokiko erakunde autonomoa» tokiko erakunde autonomoak edo «Tokiko merkataritza-sozietatea» tokiko merkataritza-sozietateak:

Ekarpenak:

- a) Proiektuaren bideragarritasuna une oro bermatzeko nahikoa baliabide ekonomiko.
- b) Proiektuaren aurrekontua (sarrerak eta gastuak).
- c) Proiektua garatzeko behar diren langileak eta materialak.

Konpromisoak:

a) Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saitetik jasotako dirulaguntza immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak egiteko erabiltzea.

b) Eskatzen baldin badio, Jarraipen Batzordeari informazioa ematea, jakin dezan nola ari den garatzen diruz lagundu den proiektua.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak:

Ekarpen ekonomikoak:

Hitzarmena sinatu duten udalari («Udala»), tokiko erakunde autonomoari («Tokiko erakunde autonomoa») edo tokiko merkataritza sozietateari («Tokiko merkataritza-sozietatea»)

,..... (e) ko..... aren.... (e) ko Ebazpenaren bidez (2026ko..... aren.... (e) ko EHAA,.... zk.),«euro» euroko dirulaguntza ematea, laguntza gisa, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan 2026an jarduerak egitearen kostua finantzatzeko.

Horretarako, ekintza horiek finantzatzeko behar diren baliabideak eskuratzea erraztearren, aktibatu beharreko aurrekontu-neurriak aktibatu dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean ere sartu da dagokion partida (abenduarien 23ko 7/2025 Legean):

Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorreko jardueretarako garatzeko laguntza: 2026 1001123000 1.31220.42100 2026/000163

2026 Ordainketa-kreditua – 931.000,00 euro.

2027 Konpromiso-kreditua – 399.000,00 euro.

Jarraipen Batzorde bat osatuko da berariaz, eta hark gainbegiratuko du laguntza hau zertan erabiltzen den. Ildo horretan, Etorrinen Harrera eta Integrazio Zuzendaritzak batere prozedurarik abiarazten badu dirulaguntza-ebazpena aldatzeko, Jarraipen Batzordeari jakinarazi beharko zaio, beti.

Seigarrena.– Dirulaguntza ordaintzeko epeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren bitartez, epe hauetan ordainduko du aurreko klausulan adierazitako dirulaguntza:

1.– Hitzarmen hau sinatu ondoren, lehen ordainketa, «euro» eurokoa, diruz lagundutako ekintzen % 70 justifikatu eta gero, 2026ko abenduaren 31 baino lehenago.

2.– Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren % 30, 2027ko ekitaldian ordainduko da, justifikatzeke geratzen diren gainerako ekintzak justifikatu ondoren 2027ko martxoaren 31 baino lehen.

Zazpigarrena.– Datuen babesa.

Gai honetan, alderdi sinatzaileek bi arau hauetan aurreikusita dagoena betetzeko konpromisoa hartzen dute (eta gauza bera dioen beste arau aplikagarriarik baldin badago, hori ere bai): Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) –datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuk Babesteko Erregelamendua) indargabetzen duena– eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa. Onuradunak, gainera, hartu beharreko teknika- eta antolakuntza-neurriak hartuko ditu, ziurtatzearen segurtasun-maila egokia izango dela arriskuaren arabera, Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan xedatu bezala.

Hitzarmena garatzen eta aplikatzen duten bitartean alderdiek datu pertsonalik biltzen edo lortzen badute, indarrean dagoen araudiaren arabera tratatu eta erabiliko dute.

Zortzigarrena.– Betebeharrak ez betetzea, eta itzultzeko prozedura.

«Udal» (e)ko Udalak, «Tokiko organismo autonomoa» tokiko organismo autonomoak edo «Tokiko merkataritza-sozietatea» tokiko merkataritza sozietateak, dirulaguntza ez badu erabiltzen eskatu zuen eta eman zitzaion horretarakoxe, ez badu egiten dirulaguntzarekin egin beharrekoa -jarduketa jakin baterako eman baitzitzaion-, ez badu justifikatzen horretan erabili izana (zertarako eskatu zuen, horretarakoxe), edo, orokorrean, ez baditu betetzen 2026ko..... aren..... (e) ko Aginduan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legeko 36. artikuluan (abenduarien 21eko 20/2023 Legea) edo hitzarmen honetan aurreikusitako betebeharrak, emandako eta jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko du, bai eta aplikatu beharreko legeko interesak ere. Arau hauetan dago zehazturik

itzulketa hori egiteko prozedura: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 40. artikulua; eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

Bederatzigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau alderdien adostasunarekin burutuko da, eta sinatzen den egunean jarriko da indarrean, 2026ko abenduaren 31ra arte. Ondorioak, aurrekoa gorabehera, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako jarduera guztietan izango ditu.

Amaitzen denean, hitzarmen hau ezin izango da luzatu.

Hamargarrena.– Izaera juridikoa.

Emandako laguntza ekonomikoa bideratzeko tresna gisa, hitzarmen hau egin dugu, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko ekintzen bidez etorkinen gizarteratzea sustatzeko. Eta, hitzarmena bera administratiboa izanik, alderdien artean adosten den bezala gauzatuko da. Edonola ere, zalantzarik sortzen bada, zalantza ebazteko printzipioak eta irizpideak bi arau hauetatik ekarriko dira: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; eta dirulaguntzen arloan indarrean dagoen gainerako araudia. Era berean, hitzarmenaren araubide juridikoa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulura dago jasota. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago.

Hitzarmen hau ulertzeko eta aplikatzeko orduan gatazkarik sortzen baldin bada eta ezin bada jarraipen-batzordean ebatzi, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak jardungo du jurisdikzio eskudun gisa, hala baitago ezarrita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Eta hitzartutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute jatorrizko dokumentu elektroniko bakarrean. Azken sinaduraren data hartuko da formalizazio-datatzat, hots, Nerea Melgosa Vega andrearen sinadura, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua.

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

«Udala»ko alkatea.

«Tokiko Erakunde Autonomoa»(e)ko presidentea.

«Tokiko Merkataritza Elkartea»(e)ko presidentea.